

**GLOBALIZAZIO EKONOMIKOAREN
HARITIK ENPRESAK EUSKALDUNDU:
LEGE-OINARRIZ, GOGO-INDARREZ¹**

1. Globalizazio ekonomikoaren haritik enpresak euskaldundu

XX. mendeko 80. hamarkadatik hona hedatu den globalizazio-fenomenoak txiki bihurtu du mundua. Bada, informazio-eta komunikazio-teknologia berriak eta garraiobideen hobekuntza oinarri, estatuen arteko mugak gainditu eta era guztietako erlazioak sortu dira esparru politikoan, ekonomikoan nahiz sozialean.

Jakina denez, horrek abantaila ugari ekarri du, ekialdeko estatuetan behinik behin. Alabaina, edozenbat arrisku eta arazo ere sorrarazi ditu. Halakoen artean, beharbada, garrantzitsuena da «ekoitzi, salerosi, kontsumitu eta bizitzeko modu harraparia»². Ildo horretatik, globalizazio ekonomikoak inoiz ezagutu ez den moduko lehia sorrarazi du enpresen artean. Gainera, lehia horretan, sarri askotan, enpresa txikiek enpresatalde handien eta multinazionalen gerizpean jardun behar dute. Bestalde, herrialde jakin baten merkatuan multinazionalak

¹ Bilbon, 2012ko ekainaren 25ean, «Zuzenbidearen erronkak, mugarik gabeko ekonomian» izenburupean, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak antolatutako kongresuan aurkeztu zen txostena.

² Horren inguruan ikusi Falk, R. *Predatory Globalization: A Critique*. Polity Press, 1999, 217 orr.

pisu handia dutenean, ezagunak dira arriskuak: deslokalizazioak³, *dumping* soziala⁴...

Hain zuzen ere, arrisku eta arazo horiek borrokatzeko ahalginean, enpresaren erantzukizun sozialaren fenomenoak edota mugimendua sortu da.

Horrela, mugimendu horren arabera, enpresa bakoitzaren borondatez kotasunetik abiatuta, badago enpresek gizartean izan beharreko eginkizun berriaren inguruan honako uste orokorra: enpresek gizartetik onura ekonomikoak lortzen dituzten heinean, gizartearekiko konpromisoa izan behar dute.

Bada, konpromiso horren arabera, enpresek berezko interesen kudeaketa hutsa gairatu eta ekarpenak egin behar dizkio horrenbeste eman ohi dion kolektibitateari, guztion ona bilatzeko asmoarekin beti.

Esangura horretan, enpresak ezin du bere kokalekuko komunitatearekiko ardurarik gabe jardun. Aitzitik, bertan txertatu behar du. Izan ere, enpresaren jarduerak eragina izan dezake langileen, bezeroen, hornitzaileen eta bestelako interes-taldeen beharrez eta interesetan. Hori dela eta, guzti-guztiek itxaroten dute zerbait enpresarengandik, igurikimen batzuk dituzte haren jokabideari begira⁵.

³ Sastre Ibarreche, R. "Deslocalización de empresas. Reflexiones desde la perspectiva iuslaboral". In *Revista de Derecho Social*, 2005, 32. zk., 11-44. orr. Sanguinetti Raymond, W. "Deslocalización empresarial y Derecho del Trabajo: en busca de respuestas. In *Temas Laborales*, 2006, 84. zk., 11-24. orr. Ikuspuntu ekonomikoan gehiago sakonduz, ikusi Muñoz Guarasa, M. "Inversión, desinversión extranjera y deslocalización". In *Papeles de Europa*, 2009, 18. zk., 68-92 orr.

⁴ Rodríguez-Piñero Royo, M.C. "El Derecho del Trabajo en la era de la globalización". In *Gaceta Sindical*, 2002, 2. zk., 161-178 orr.

⁵ Tascón López, R. Aspectos jurídico-laborales de la Responsabilidad Social Corporativa. Madril: *Centro de Estudios Financieros*, 2008, 20-21. orr. Halaaber, ikusi Boiral, O. "Certificar la buena conducta de las empresas. Retos, problemas y perspectivas". In *Revista Internacional del Trabajo*, 2003, 122. liburukia, 3. zk., 357-358. orr.

Halatan, enpresa batek erantzukizun soziala izatea betebeharr juridikoak gauzatzea baino zerbait gehiago da, nahiz eta, askotan, hori berori lortzea ere oso gaitza izan. Edonondik begira dakiola ere, enpresa batek erantzukizun soziala izan dezan, nahitaezkoa da horrek bere jarduera hartzea ukitzen dituen banakako eta talde guztienganako erantzukizun gisa⁶.

Laburbilduz, enpresaren erantzukizun soziala dimentsio anitzeko kontzeptua izanik ere⁷, horren inguruko definizio egokitzat jo daiteke Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak emandakoa, «Enpresen Erantzukizun Sozialerako Europako Esparrua Suspertzea» Liburu Berdeari buruzko Irizpenean⁸. Horrela, «enpresaren erantzukizun sozialaren bidez enpresek kalitatezko harremanak izan ditzakete euren jarduerak ukitutako alderdiekin: akziodunekin, langileekin, sindikatuekin, bezeroekin, hornitzaileekin, azpikontratariekin, elkarteekin eta tokian tokiko erakundeekin, batik bat, giza, gizarte, finantza eta ingurumen esparruetan, borondatea edo negoziazioa oinarri».

Eta kalitatezko harreman horiek gauzatze aldera, alegia, gizartearekiko konpromisoa egiaztatzeko, hiru dira enpresek aintzat har ditzaketen esparruak: ekonomia-finantzen esparrua; ingurumenaren esparrua; eta esparru soziala⁹.

⁶ Purcalla Bonilla, M.A. Responsabilidad Social de las empresas: del mito (o de la moda) a las primeras realidades normativas. In *Revista General de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social*, 2011, 24. zk., euskarri informatikoa, 3. or.

⁷ Dimentsio anitz horren inguruan ikusi Sánchez-Urán Azaña, Y. "Responsabilidad social de las empresas y códigos de conducta empresariales: aproximación desde el Derecho del Trabajo". In *Civitas: Revista Española de Derecho del Trabajo*, 2010, 148. zk., 823-829. orr.

⁸ COM (2001) 366 final. Bada, Komiteak osatu egiten du Europako Batzordeak Liburu Berdean emandako definizioa: «enpresek merkataritzako eragiketetan eta solaskideekin dituzten harremanetan borondatez barne hartzea gizarte- eta ingurumen-kezkak» (COM/2011/0366final*).

⁹ Tascón López, R. *op. cit.*, 35-43. orr.

Esparru sozialari dagokionez, enpresaren helburua izan behar da beraren jarduera zein tokitan gauzatu eta toki horretan garapen eta onura soziala bultzatzea, interes-taldeek dituzten igurikimenak gauzatzuz.

Euskal Autonomia Erkidegoari erreparatuz –lan honetan Euskal Herriko beste herrialdeak bazter utziko baitira, horien egoeraz gogoeta egiteak azterketa sakonagoa eskatzen duelakoan–, eta, zehazki, lan honen gaiari dagokionez, esparru sozialean argiro identifika daiteke interes-talde askok euskarekiko duten ardura eta kezka.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten enpresentzat esparru egokia izan daiteke euskararen normalizazioarena, euskal gizartearekiko duten konpromisoa agertu eta erantzukizun soziala dutela egiaztatzeko. Areago, gaur egungo antolamendu juridikoak enpresak euskalduntzeko dituen neurriak hobe ditzakete.

Nolanahi ere, borondatez hartutako konpromiso horri esker, ezin uka daiteke enpresek merkatuan lehiatzeko abantaila nabarmena erdiets dezaketela. Egin-eginean ere, bezero euskaldunenganako gertukotasuna irabaziko dute, bezeroak gehitzeko aukera izanez¹⁰.

Baina euskararen normalizazioaren aldeko borondatezkotasun horren atzean marketin-eragiketa hutsak ezkuta ez daite-

¹⁰ Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak, Industria eta Lan Sailekin bat eginik, eta foru-aldundien eta EUDELen elkarlanarekin, 2006an, LanHitz programa sortu zuen, lan-munduan euskararen erabilera eta presentzia suspertzeko (ikusi www.euskara.euskadi.net). Bada, enpresetan euskara-planak aplikatzearen alde hurrengo abantailak aipatzen dira programa horretan: ingurunean errotutako enpresaren irudia lortuko da, euskal gizartearekin bat datorrena; enpresa lehiakorraren irudia eta berrikuntzarako gaitasuna erakusten da; euskal bezeroei zerbitzu hobea ematen zaie, hurbiltasun kulturala, prestakuntza eta errespetua adieraziz; gizartean euskal hiztunak gero eta gehiago direnez, arian-arian euskara merkatuko aktiboa izan daiteke, zerbitzu-sektorean batez ere.

zen, enpresek ahalegin berezia egin behar dute, hots, euskara lantokien egunerokotasunean txertatu behar dute. Enpresaren erantzukizun sozialak, halaber, barrura ere begiratu behar du. Bateko, bezeroei euskaraz eskainitako zerbitzua kalitatezkoa izan dadin, nahitaezkoa delako euskara maila egokia duen langile-kopuru nahikoa izatea. Besteko, langile euskaldunen hizkuntza-eskubideak ere bermatu behar direlako, enpresaren eta langileen arteko harremanetan. Dena den, enpresa oso-osoan euskalduntzeko, kanpora nahiz barrura begira, borondatea ez ezik, lege-oinarri eta betekizun juridikoak ere aintzat hartu beharko dira.

2. Enpresa euskalduntzeko lege-oinarriak eta betekizun juridikoak

2.1. Lege-oinarriak

Enpresa euskalduntzeko aukera baliatzeko lege-oinarrietatik abiatzea komeni da, horiek antolamendu juridikoak beste ondasun juridiko batzuk babesteko ezarri dituen betekizunekin harremanetan jarri, eta kasuan kasuko modulazio arrazional eta proportzionalak egiteko¹¹. Azter ditzagun, bada, oinarriok.

(1) Nazio Batuen 1945eko ekainaren 26ko Gutunaren 55.c) artikulua arabera, Erakundeak sustatuko du «guztion giza eskubideei eta oinarritzko askatasunei errespetu unibertsala, arraza-, sexu-, hizkuntza- edo erlijio-arrazoiak direla medio be-reizkeriarik egin gabe, eta eskubide eta askatasun horien eragingarritasuna».

(2) Nazio Batuen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2. artikuluko 1. lerrokadaren arabera, «gizaki orori dagozkio adierazpen honetako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa,

¹¹ Lege-oinarri horietako asko Euskaltzaindiak jaso ditu. Ikusi Euskaltzaindia. *Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz*. Jagon Saila. Bilbo, 2007.

politikako edo bestelako iritzia, sorterria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeherengatik».

(3) Nazio Batuen 1966ko Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 27. artikulua arabera, «estatueta... hizkuntza-gutxiengoak daudenean, gutxiengo horietako giza-kiei ez zaie ukatuko, haiek, talde bereko beste kideekin batera, duten eskubidea... euren hizkuntza erabiltzeko...».

(4) Nazio Batuen 1966ko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren 2.2 artikulua arabera: «itun honetan alderdi diren estatuak konpromisoa hartzen dute, itun honetan bertan aipatu eskubideen egikaritzea bermatzeko, bereizkeriarik egin gabe, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo beste era bateko iritzi, nazioko nahiz gizarteko jatorri, maila ekonomiko, jaiotza nahiz bestelako gizarte-izateak direla medio».

(5) Nazio Batuen Giza Eskubideen Nazioarteko Konferen-tziaren 1968ko Teheraneko Aldarrikapenaren 1. puntuaren arabera, ezinbestekoa da «nazioarteko erkidegoak bere bete-behar solemnea betetzea, hots, giza eskubideei eta oinarri-zko askatasunei zor zaien begirunea guztiontzat sustatu eta bultzatzea, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio eta iritzi politikoetan edo bestelako iritzietan oinarritutako bereizke-riarik egin gabe».

(6) Nazio Batuen Giza Eskubideen Nazioarteko Konferen-tziaren 1993ko Vienako Adierazpenaren 19. puntuaren arabe-ra, «gutxiengo-taldeetako pertsonen eskubidea dute euren kul-tura izateko, euren erlijioa eduki eta praktikatzeko, eta euren hizkuntza jendaurrean eta arlo pribatuan erabiltzeko, askata-sun osoz eta inoren esku-sartze edo bereizkeriarik gabe».

(7) Nazio Batuen 1992ko Hizkuntza eta Erlijio Gutxiengo Nazional edo Etnikoetako Pertsonen Eskubideen Adierazpene-ko 1. artikulua arabera: «estatuak, euren lurraldeen barruan, babestu egingo dituzte gutxiengoen existentzia eta nazio-nahiz etnia-, kultura-, erlijio- eta hizkuntza-nortasuna, eta nor-tasun hori sustatzeko baldintzak eragingo dituzte». Are gehia-

go, «estatuak, helburu horiek guztiak lortzeko, neurri egokiak hartuko dituzte, legegintzaren arloan nahiz bestelakoetan».

(8) UNESCOren 2001eko Kultura Aniztasunaren aldeko Adierazpen Nagusiko 5. puntuaren arabera, «gizaki orok aukera izan behar du adierazpenak egiteko, eta bere obrak sortu eta zabaltzeko, berak nahi duen hizkuntza horretan, eta, bereziki, ama-hizkuntzan».

(9) UNESCOren 2005eko Kultura Adierazpen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeko Konbentzioaren atarikoan gogorarazten da hizkuntza-aniztasuna kultura-aniztasunaren oinarritzko osagai dela. Halaber, 6.1. artikulua arabera, «alderdiek, euren kultura-politiken eta -neurrien eremuan... euren inguruar bar eta beharrian bereziak aintzakotzat harturik, zenbait neurri hartu ahal izango dituzte, euren lurraldeetan kultura-adierazpenen aniztasuna babestu eta sustatzeko».

(10) UNESCOren Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Bartzelonan onetsitakoa, 1996ko ekainaren 6an. Bada, II. tituluko VI. atalak beren-beregi jorratzen ditu alor sozioekonomikoan aitortu beharreko hizkuntza-eskubideak, kontsumitzaile eta erabiltzaileek ez ezik, langileek ere euren lurraldeko hizkuntza propioa erabiltzeari dagokionez (ikus 47-52. artikulua).

(11) Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunaren¹² 21. artikulua arabera, «debeku da bereizkeria oro», eta bereizkeria-arrazoi garrantzitsuenen artean hizkuntzan oinarritutakoak jaso dira. Halaber, 22. artikulua arabera, «Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu».

(12) Europar Batasunaren Tratatuaren¹³ 2. artikulua arabera, «Batasunak oinarritzko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatu eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barne direla». Horren proiektio gisa,

¹² 2010eko martxoaren 30eko EBAO, C 83.

¹³ 2010eko martxoaren 30eko EBAO, C 83.

3.3 artikulua azken tartekaduraren arabera, «Batasunak, bere kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna errespetatu du eta Europaren kultura-ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du».

(13) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren¹⁴ 167. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, «Estatu ki-deetako kulturak suspertzen lagunduko du Batasunak, barruko nazio eta eskualdeen aniztasuna errespetatuz, eta, aldi berean, kultura-ondare erkidea nabarmenduz». Orobat, artikululu bereko 4. paragrafoaren arabera, Tratatuak «beste xedapenen indarrez jardun behar duenean, Batasunak kultura-ikuspegiak hartuko ditu kontuan, bereziki bertako kultura-aniztasuna errespetatu eta sustatzeko».

(14) Europako Kontseiluaren 1992ko Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 13. artikulua ekonomia- eta gizarte-bizitzan hizkuntza-eskubideak errespetatzeari inguruan dabil. Zehatzago, konpromiso batzuk jasotzen ditu, eta, horien artean, hurrengoak dira nabarmentzekoak: (a) legedietatik kanpo uztea ekonomia- eta gizarte-bizitzari buruzko dokumentuetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko aukera, arrazoi justifikagarririk gabe, debekatu edo mugatu duen xedapen oro, batez ere lan-kontratu eta dokumentu teknikoetan, esaterako, produktuak edo ekipamenduak erabiltzeko jarraibideetan; (b) enpresen barne araudietan eta egintza pribatuetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera baztertu edo mugatu duen ezein klausula sartzea debekatu, gutxienez hizkuntza bera hitz egiten dutenen artean; (c) ekonomia- eta gizarte-jardueretan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera ahultzeko asmoa duten praktiken aurka egitea; (d) aurreko idatz-zatietan azalduko bitartekoak baino beste batzuk erabiltzea, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera erraztu eta/edo sustatzea.

¹⁴ 2010eko martxoaren 30eko EBAO, C 83.

(15) Europako Kontseiluaren 1994ko Nazio Gutxiengoak Babesteko Hitzarmen Orokorren 5.1 artikulua arabera, «alderdiek konpromisoa hartzen dute, beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko, baldintza horiek ahalbide dezaten nazio-gutxiengotako gizakiek euren kultura iraunarazi eta garatzea, bai eta haien nortasunaren oinarrizko osagaiak babestea ere, hala nola, euren erlijioa, hizkuntza, tradizioak eta kultura-ondarea».

(16) Espainiako 1978ko Konstituzioaren¹⁵ 3. artikulua arabera, lehengo eta behin, «gaztelania da Espainiako estatua-ren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea». Edonola ere, «Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritz». Gainera, «Espainiako hizkuntza-modalitate desberdinen aberastasuna kultura-ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du».

(17) Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren, Euskal Herriko Autonomia Estatutua onestekoaren¹⁶ 6. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, «euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialaren maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea». Artikulu beraren 3. paragrafoan hizkuntza-bereizkeria debekutzen da.

(18) Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea¹⁷, Euskaren Erabilpena Arautzekoa. Arau horretan, honako hauek dira nabarmendu beharreko xedapenak: (a) 3. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira; (b) 4. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, herri-agintariek ardura izan eta behar diren neurriak hartuko dituzte; (c) 5. artikulua 1. paragrafoaren arabera euskal herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz

¹⁵ 1978ko abenduaren 29ko EAO, 311. zk.

¹⁶ 1980ko urtarrilaren 12ko EHAAren 32. zk.

¹⁷ 1982ko abenduaren 16ko EHAAren 160. zk.

idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Artikulu bereko 2. paragrafoan euskal herritarroi aitortutako hizkuntza-eskubide funtsezkoak jaso dira; bada, halakoen artean dago lanbide-, lan-, politika- eta sindikatu-ekintzetan euskaraz aritzeko eskubidea. Gainera, 3. paragrafoan herri-agintariei ezarri zaie eskubide horiek bermatzeko betebeharra, eragingarriak eta benetakoak izan daitezen; (d) 26. artikulua arabera, herri-agintariak euskara gizarte-bizitzaren alor guztietan erabil dadila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jarri behar dituzte, herritarrei merkataritza-, kultura-, bazkun-, kirol- erlijio-ekintzetan eta beste nolanhiko ekintzetan euskaraz aritzeko bideak eskaintze aldera.

2.2. Betekizun juridikoak

Aurreko lege-oinarriak aintzat hartuz, enpresa batek askatasunez aukera dezake euskararen alde egitea barrura nahiz kanpora begira dituen harremanetan. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi betekizun juridiko batzuk gauzatu behar ez direnik. Jarraian ikusiko den moduan, horren inguruko arazorik handienak barrura begira sor daitezke.

Hain justu, barrura begira, gaztelaniaren koofizialtasuna dela eta, arazoak sor daitezke langileak, alokairukoak nahiz autonomoak, kontratatzean. Printzipioz, enpresaburua aske da kontratatu nahi dituen langileak hautatzeko, baina bere erabakiak ezin die kalterik egin oinarrizko eskubideei eta, batik bat, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioei. Bada, azken horietara biltzen da langileak kontratatzeko orduan hizkuntza-arrazoietan oinarritutako bereizkeriarik ez egiteko debekua ere. Arestian aipatu lege-oinarrietatik hori berori ondoriozta badaiteke ere, egon badaude esanbidez horri erreferentzia egiten dioten arauak Espainiako barne arautegian¹⁸. Zehatzago, bereizkeria hori izan daiteke nega-

¹⁸ Horien inguruan Purcalla Bonilla, M.A. “Los derechos lingüísticos en el marco de las relaciones laborales: un análisis de realidades comparadas”. In *Tribuna Social*, 2009, 221. zk., 28. or.

tiboa, ohikotasunez komunikatzeko euskara edo gaztelania erabiltzen duten pertsoneri begira, edo, positiboa, erabateko lehentasuna ematen zaienean euskara hitz egiten duten pertsoneri, hitz egiten ez dutenen aurretik.

Horrela, alokairuko langileei dagokienez, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege Dekretuaren, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testuategina onestekoaren, 17.1 artikulua ezarri du, kontratatua egiteko unean edo kontratuko eginkizunak gauzatu bitartean, hizkuntzarengatik, Espainiako estatu barruan, bereizkeriarik ez jasateko eskubidea. Era berean, lege bereko 16.2 artikuluan xedatutakoa dela bide, kolokazio-agentzia publiko nahiz pribatuek ere langileen eskubide hori bermatu beharko dute egiten dituzten kontratu gutzietan.

Halaber, uztailaren 11ko 20/2007 Legeak, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzkoak¹⁹, langile autonomoei aitortu dizkie euren lanbide-jarduera gauzatzean legearen arabera berdinak izateko eskubidea, eta bereizkeriarik ez izateko eskubidea, zuzenean edo zeharka, Espainiaren barruan hizkuntza ofizialekoren bat erabiltzeagatik (4.3.a artikulua).

Bestalde, horrek gutziorrek isla du abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzazko Errege Dekretuan, Arlo Sozialeko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testuategina onestekoan²⁰. Halatan, arau horren arabera, arau-hauste oso astuna da, langileak hautatzeko prozesuetan izaera pertsonaleko datuak eskatzea edo iragarkien bidez, hedatze bidez edo bestelako edozein baliabideren bidez baldintzak ezartzea, halakoek, enplegua lortzeari dagokionez, aldeko nahiz aurkako bereizkeriak eragiten badituzte, hizkuntzarengatik, Espainiako estatu barruan (16.2 artikulua). Halako ez-betetzeak zehatzen dira, gutxienez, 6.251 euroko isunarekin eta, gehienez, 187.515 euroko isunarekin. Areago, Zigor Kodeko 314. artikulua are-

¹⁹ 2007ko uztailaren 12ko EAO, 166. zk.

²⁰ 2000ko abuztuaren 8ko EAO, 189. zk.

bera, norbaitek, enpleguan, pertsona baten aurka bereizkeria larria sortarazi eta, administrazio-agindei edo -zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badu, horrek ondorioztatu dituen kalte ekonomikoak konponduz, hain zuzen, bereizkeriaren arrazoi dela Espainiako estatuaren hizkuntza ofizialen bat erabiltzea, orduan, halakoari 6 hilabetetik 2 urte arteko espetxealdi-zigorra edo 12 hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaio²¹.

Hori guztiori kontuan hartuta, enpresaburu batek langile euskaldunak bakarrik kontrata ditzan arrazoi argi eta objektiboak alegatu behar ditu. Duda-mudarik gabe, euskara jakitea irizpide erabakigarria izan daiteke pertsona bat kontratatzeko orduan. Edonola ere, halakoetan, kontratazio-baldintza moduan kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna ezartzea inguruabar garrantzitsua da aipatu objektibotasunaren mesedetan. Ezin uka daiteke hautagai jakin bat aukeratzeko orduan, eta, beraz, beste batzuk baztertzeko, hori arrazoi objektiboa ez denik, betiere, langilearen lanpostuak kualifikazio hori behar duenean. Eta kualifikazio hori beharrezkoa izango da langileak bere eginkizunak jendaurrean gauzatu behar dituztenean. Izan ere, langile horrekin harremanak izango dituzten bezero, erabiltzaile nahiz kontsumitzaile edo gainerakoek behar-beharrezkoa dute arreta egokia izatea, euskaldunak izan eta euskaraz zuzentzen direnean²². Aitzitik, bereizkeria izan daiteke hizkuntza-eskakizuna ezartzea kontratu-baldintza gisa, langileak gauzatu

²¹ Antzeman daitekeenez, langileen aurkako delitu bat baino gehiago, desobedientzia-delituak dirudi. Arean ere, horrek bereizten du administrazio-zehapenetik. Esangura horretan, Valle Muñiz, J.M. eta Villacampa Estiarte, C. "Artículo 314". Quintero Olivares, G. (Dir.). *Comentarios al Código Penal. Tomo II. Parte Especial (Artículos 138 a 318)*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2008, 5. argitaraldia, 1200. or.

²² Martín Valverde, A. eta García Murcia, J. *Tratado práctico de Derecho del Trabajo. Volumen I*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2008, 888. or. Ildo beretik, Garrigues Giménez, A. "Artículo 17". De La Villa Gil, L.E. (Dir.). *Comentarios al Estatuto de los Trabajadores*. Madril: Iustel, 2011, 405. or.

beharreko eginkizunetatik ez denean ondorioztatzen euskaraz jakiteko premiarik²³.

Halakorik gerta ez dadin, eta langile euskaldunak behar dituzten lanpostuak berme guztiekin zehatz daitezen, baliagarri izan daiteke aintzat hartzea abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak²⁴, eta uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoak²⁵, ezarri dutena hizkuntza-eskubideen inguruan.

Printzipioz, 6/2003 Legearen 4.f) artikulua arabera, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubidea da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, lege horretan eta antolamendu juridikoko gainerako legeek ezartzen dutena kontuan hartuz. Horrek, nolabaiteko mugak aurreikusten ditu, eskubidea egikaritzeari dagokionez. Baina ikus dezagun zein den arauketa eta zein horrek ezarritako mugak.

Aipatu Legearen 2. tituluko 7 kapitulura bildu dira kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak, eta horien artean, hurrengoak dira kasuan kasuko enpresa eta establezimenduetako langileek euskara jakin behar dutela erartzen dituzten manuak:

²³ Administrazio Publikoaren esparruan bada ere, hori berori adierazi du Konstituzio Auzitegiak ez ezik [1986ko ekainaren 26ko 82/1986 KAE, 14. O.J. eta 1991ko otsailaren 28ko 46/1991 KAE, 4. O.J.] Auzitegi Gorenaren 3. Salak ere [1990eko apirilaren 16ko AGE, 2. Z.O. (3609/1987 erre. zk.); 1991ko uztailaren 8ko AGE, 6. Z.O. (ROJ: 7758/1991); 1994ko uztailaren 8ko AGE, 2. Z.O. (8511/1992 erre. zk.); 1995eko apirilaren 18ko AGE, 3. Z.O. (ROJ: 8626/1995); 1996ko uztailaren 22ko AGE, 2. Z.O. (9622/1991 erre. zk.).

²⁴ 2003ko abenduaren 30eko EHAA, 254. zk. Kontuan hartu behar dira otsailaren 9ko 2/2012 Legeak eragindako aldarazpenak (2012ko otsailaren 17ko EHAA, 35. zk.).

²⁵ 2008ko uztailaren 16ko EHAA, 135. zk. Kontuan hartu behar dira uztailaren 20ko 204/2010 Dekretuak eragindako aldarazpenak (2010eko uztailaren 26ko EHAA, 142. zk.).

(1) 37.b) artikuluaaren arabera, kontsumitzaile eta erabiltzaileek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresa edo establezimenduetako langileekin dituzten harremanetan, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea dute. Ondorenez, enpresa eta establezimendu horiek, bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia emateko beharra dute.

(2) 38.3 artikuluaaren haritik, erakunde publikoek betebeharra dute kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta egiteko horiek hautatzen duten hizkuntza ofizialean. Bada, gogora ekarri behar da erakunde publikotzat hartzen direla, aipatu artikuluaaren 1. paragrafoaren arabera: (a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta Estatuko Administrazioa, eta baita horien mende dauden edo horietako erakunde-administrazioa osatzen duten zuzenbide pribatu edo publikoko entitateak ere; (b) titulartzat administrazio horiek dituzten zerbitzuak kudeatzeaz zein erakunde arduratu eta halako erakundeak, baldin eta horiek mota horretako zerbitzuak eskaintzen badituzte; (c) Administrazioek edo erakunde-administrazioa zein entitatek eratu eta halako entitateek partaidetza duten edo horien kontrolpeko erakundeak, horien izaera edozein dela ere. Ondorio horietarako, kontrol-harremanak honako kasuetan daudela ulertuko da: erakundearen boto-eskubide gehienak dituztenean edo gobernu-organoko kide gehienak izendatu edo kargutik kentzeko eskubidea dutenean.

(3) 40. artikulua, «bezeroarentzako arreta» lemapean, 1. paragrafoan ezarri du jendeari produktuak saldu eta zerbitzuak emateaz arduratzen diren establezimenduak gertu egon behar dutela kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta emateko, horien hizkuntza ofiziala edozein dela ere. Agindu orokor hori gorabehera, eta errepikakorra bada ere, artikulua bereko 4. paragrafoan xedatu da, jendearentzat irekita dauden saltokien kasuan, baldin eta halakoak badira lan-harremanen eta jendearen arretaren alorrean euskara integratzera berariaz zuzendutako diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeen saltokiak, edo interes orokorreko sektoreetako saltokiak, kasu horietan, ahamena izan behar du dutela kontsumitzaileei eta erabiltzaileei beraiek erabili-

tako hizkuntza ofizialean arreta eskaintzeko, hizkuntza ofizial hori edozein izanik ere. Egia esan, arau orokorra izanik ez da ulertzen zertara datorren azken xedapen hori.

Bestalde, 123/2008 Dekretuari dagokionez, zioen azalpenetik hasita, sumatzen da erabiltzaileen eta kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak erabat bermatzeko dagoen borondaterik eza. Bada, Dekretu horrek, 6/2003 Legea garatzean (horren azken xedapenetatik hirugarrena oinarri harturik), hankaz gora jartzen ditu lege hori aztertzean aipatutako manu guztiak. Zinez, zeharo mugatzen ditu legearen asmo handiak. Horrela, zioen azalpean esaten da dekretuaren helburuetako bat dela jendaurreko enpresa, erakunde eta establezimenduen hizkuntza-betebeharrak zehaztea (halaber, ikusi 1. artikulua). Baina, berehala, dekretuak ahalmen mugatua izango duela aitortzen du, «kontsumo-harreman jakin batzuk soilik hartzen baititu eraginpean, ez den-denak». Horrenbestez, «dekretutik at geratu dira kontsumo-arloko beste hainbat harreman, gehienbat merkataritza txikian eta mikroenpresetan biltzen direnak izanik», hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan pisu gehien dutenak.

Azken buruan, printzipioz, Dekretuaren aplikazio-esparruak argitzen digu egiatan zein enpresa, erakunde eta establezimenduk dituzten betebeharrak erabiltzaileei eta kontsumitzaileei euskaraz arreta egiteko²⁶. Printzipioz diogu, Dekretuaren 3. ka-

²⁶ Bada, 2. artikuluaaren arabera, aplikazio-esparrura biltzen dira: (1) 6/2003 Legeak definitutako erakunde publikoak. (2) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, legez unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria batekoak diren zerbitzuak ematen dituzten erakunde edo pertsona juridikoak, edo unibertsaltasun eta berdintasuneko araubide juridikoaren mende dauden zerbitzuak ematen dituztenak. Kategoria horretara biltzen dira: (a) Euskal Autonomia Erkidegoan komunikazio-sareak ustiatzen dituzten komunikazio-operadoreak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jendearentzako telefono-zerbitzuak ematen dituztenak; (b) Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien trenbideko garraio publikoko zerbitzuak ematen dituzten tren-enpresak; (c) Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak; (d) Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiarien aire-garraioko zerbitzu

pituluan sakondu direlako bezeroei zor zaien arretaren inguruko betebeharrak. Modu horretara, bezeroarentzako arretatzat hartzen da «kontsumitzaile eta erabiltzaileari zuzenean ematen zaion edozein informazio edo aholku, aurrez aurre, telefonoz edo bide elektronikoz²⁷, idatzita nahiz ahoz, ondasun, produktu edo zerbitzuen kontsumoarekin loturik, baita erreklamazioak egiteko lagungarri dena, ordainketa-moduei eta finantziazioari buruzkoa, eta saldu osteko zerbitzu eta merkataritza-bermeei buruzkoa ere» (13.1 artikulua). Gainera, dekretuaren aplikazio-esparruko erakunde eta establezimenduek bezeroarentzako ematen duten arreta ez da kaltetu, atzeratu, ezta eragotziko ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen duelako (13.2 artikulua). Labur-zurrean esanda,

erregularrak ematen dituzten enpresak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aireporturen batean bidaiarien lehorreko asistentzia-zerbitzuak ematen dituztenak; (e) Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak energia elektriko hornitzen dituzten banaketa-enpresak edo merkaturatze-enpresak; (f) Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile eta erabiltzaileei saltzeko, gas naturala merkaturatzen duten enpresak. (3) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden jendeari begirako, produktuak saltzeko edo zerbitzuak emateko establezimenduak, baldin eta halakoek honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute: (a) 250 langiletik gora dituzten enpresetakoak diren establezimenduak izatea, betiere urtean 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena badute, edo haien urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa bada, edo aurreko baldintza horiek betetzen dituen beste enpresaren batek haien kapitalaren edo boto-eskubideen %25 edo gehiagoko partaidetza baldin badu; (b) Jendeari saltzeko gunearen azalera 400 metro karrotatik gorakoa duten establezimenduak izatea, Bilbon, Gasteizen, Donostian edo elebidunen proportzioa %33 baino handiagoa duten udalerrietan kokatuta badaude; (c) Bezeroarentzako arreta ematen duten plantillako langileak 15 baino gehiago dituzten establezimenduak izatea. (4) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako merkataritza-establezimenduak, betiere horiek kolektiboak badira, hau da, esparru edo eraikin beraren barruan hainbat saltoki badaude eta saltoki horietako jarduerak era independentean gauzatzen badira; (5) Euskal Autonomia Erkidegoan jendeari begirako establezimendua duten kreditu-erakundeak; (6) Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten profesional, enpresa edo eraikuntza-obren sustatzaileak.

²⁷ Arreta telefonoz edo bide elektronikoen bidez egitearen inguruko arauketa sakona 14. artikuluan egin da.

azken agindu horrek argi uzten du dekretuaren aplikazio-esparruko erakunde eta establezimenduek langile euskaldunak izan behar dituztela. Horrekin nahiko litzateke, baina Dekretuak erabiltzaile eta kontsumitzaileei eurek aukeratutako hizkuntza ofizialean arreta egiteko betebeharra ezarri die hurrengoei esanbidez: erakunde publikoei (13.3 artikulua); zerbitzu unibertsalak, interes orokorrekoak edo antzeko beste kategoria bateko zerbitzuak ematen dituzten jendaurreko establezimenduei (13.4 artikulua); zerbitzu osoa Euskal Autonomia Erkidegoan zehar egiten duten garraio-bideei, halakoak direnean tren bidezko garraio-zerbitzu publikoak eta errepide bidezko garraio-zerbitzu erregularrak (13.5 artikulua); Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako establezimendu kolektiboei (13.6 artikulua); telefono-komunikazioetako operadoreei (15. artikulua); abonatu-zenbakiak telefonoz kontsultatzeko zerbitzua ematen dituzten operadoreei (16. artikulua); eta finantza- eta kreditu-erakundeei (17. artikulua).

Edozein kasutan ere, nabarmendu behar da 2/2012 Legeaz geroztik, betebeharrak horiek guztiak, bai eta 6/2003 Legearen 2. tituluko 7. kapituluaren eta 123/2008 Dekretuaren jasotako osterantzekoak ere, ezerezean geratu direla. Bestela esanda, borondatearen esparrura igaro dira²⁸. Hortik, bada, hurrengo puntuan gogo-indarraz mintzatzea, hala nahi duten enpresek, gutxienez, jarraibide bezala erabili ahal izango baitituzte sasi-betebeharrak haiek. Eta harrigarri eta bitxia dena, legegileak egin ez duena egiteko aukera ere izango dute enpresek, alegia, hi-

²⁸ Hurrean ere, lege horren 2. xedapen gehigarriaren idazkera berriaren arabera, lege horren «IV. tituluko aurreikusitako zehapen-erregimena ez zaio aplikatuko legearen II. tituluko VII. kapituluaren kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei dagokienez egiten den erregulazioari, ez eta hura garatzen duten arauen xedapen gehigarriari ere». Teknika juridiko negargarri horrek agerian uzten du zuzenbidean ulertezina dena: betebeharrak ezartzen dira, baina betebeharrak hausten dituenari ez zaio inolako zehapenik ezartzen. Hortaz, legegilea betebeharrak moralen esparruan gelditzen da.

tzarmen kolektiboen bidez euskararen normalizaziorako neurriak arau bihurtzea.

Baina hurrengo puntuari heldu aurretik, argitu behar da enpresa batek langile euskaldunak kontratatzeko hizkuntza-eskakizunak baliatzen dituenean, hautaketa arrazoi objektiboetan oinarritzeko, ezinbestekoa dela kontuan hartzea azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzaren Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak²⁹, ezarritako mailak. Modu horretara, lortuko da, enpresak bete nahi dituen lanpostuen eginkizunen arabera, hizkuntza-maila egokiak eskatzea. Hurrean ere, bete beharreko lanpostuaren eginkizunak eta enpresak eskatutako hizkuntza-maila bat ez badatoz hizkuntza-eskubideak urra daitezke, bai eta horien inguruan enpresek hitzarmen kolektiboetan edo itun kolektiboetan ezarritako betekizunak ere³⁰.

Bukatzeko, gogoratu behar da, enpresa batek ezin duela hizkuntza-titulu edo -ziurtagiri ofizial jakin bat galdatu, eta gai-nontzekoak baztertu. Bestela esanda, 297/2010 Dekretuak onartutakoetarik edozein da baliagarri, nahiz eta halakoak Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian lortu³¹.

²⁹ 2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zk.

³⁰ Lan-poltsa bat eratzean “Eusko Trenbideak” enpresak eskatutako euskara-mailaren inguruko gatazka kolektiboari buruz ikusi 2009ko azaroaren 25eko Auzitegi Gorenaren 4. Salako epaia (145/2008 erre. zk.). Epaia horrek enpresaren alde egiten du, frogatuztat jotzeagatik enpresak, lan-poltsa eratzean, lanpostu jakin bati dagokionez eskatutako euskara-maila bat datorrela enpresak Euskara Planean, maila ofizialak aintzat hartuz, lanpostu horrentzat ezarritako eskakizunekin.

³¹ Hori berori ezarri zuen Auzitegi Gorenaren 4. Salak, 2009ko maiatzaren 6ko epaian (3915/2005 erre. zk.), Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizial batean eskuratutako euskara-tituluaren eragingarritasuna aitortzerakoan Euskal Autonomia Erkidegorako. Halaber, Europar Batasuneko Auzitegiaren jurisprudentziatik hori ondoriozta zitekeen aspalditik. Batetik, C-379/1987 Auzian, *Anita Groener v. Minister for Education and the City of Dublin Vocational Educational Committee*, Auzitegiak adierazi zuen bereizkeriarik eza-

3. Enpresa euskalduntzeko gogo-indarra

Enpresek, gaur egun, lege-aginduz plantilletan langile euskaldunak izateko betebeharrak eduki ez arren, erantzukizun soziala dela eta, posible da, ikusi den bezala, lantokiak euskalduntzearen aldeko apustu egitea.

Langile euskaldunak kontratatzeko konpromisoaz gain, plantillako langileak euskaraz trebatzeari ekin diezaioke, edo, ezari-ezarian, euskara-planak ezartzen has daitezke. Hain zuzen, euskara-planari begira, arestian aipatu LanHItz programa publikoari esker laguntza tekniko nahiz ekonomiko lor dezakete³². Gainera, Erreferentzia Marko Estandarra (EME) aintzat hartuta, mailaz mailako euskara-planak egin daitezke, hots, enpresako hizkuntza-egoeraren arabera helburu desberdinak dituztenak. Oro har, hiru dira landu daitezkeen arloak: (a) enpresaren irudia eta komunikazioa: errotulazioa, publizitatea, webgunea...; (b) kanpo harremanak: bezeroekin, hornitzaileekin eta gainontzekoekin ahozko nahiz idatzizko harremanak;

ren printzipioa urratzen duela kasuan kasuko hizkuntza-ezagutzak lurralde nazional jakin batean eskuratu behar direla galdatzeak (23. paragrafoa). Bes-tetik, C-281/1998 Auzian, *Roman Angonese v. Cassa di Risparmio di Bolzano SpA*, Auzitegiak adierazi zuen naziotasunean oinarritutako bereizkeria dela, enpresaburu batek hautatze-prozedura bati begira hautagaiei galdatzea hizkuntza-ezagutzak titulu jakin baten arabera egiaztatzea, hain zuzen ere, Estatu kide bateko probintzia bakar batean luzatutako tituluaren arabera (45. paragrafoa).

³² Laguntza teknikoari dagokionez, giza baliabideak eskaintzen dira, hala nola, euskara-planak egiteko, kontsulta eta aholkularitzarako, itzulpenetarako, eta langileak euskaraz trebatzeko, bai eta aplikazio informatikoak eta lan-agi-riak, terminologia eta fraseologia ohikoena biltzen duen banku telematikoa ere. Diru-laguntzei dagokionez, urteroko deialdiak kontuan hartu behar dira. 2012rako finantzazio-lerroak hurrengo arauetan jaso dira: Eusko Jaurlaritzakoa, 2012ko maiatzaren 9ko Kulturako sailburuaren Aginduan (2012ko maiatzaren 25eko EHAA, 102. zk.); Bizkaiko Foru Aldundikoa, abenduaren 7ko 192/2011 Foru Dekretuan (2011ko abenduaren 12ko BAOren 234. zk.); Gipuzkoako Foru Aldundikoa, Euskararen erabilera sozialaren esparruan diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileari eta 2012ko deialdiari buruzko Diputatuen Kontseiluaren Erabakian (2012ko otsailaren 13ko GAO, 29 zk.).

(c) barne harremanak: informazioa eta komunikazioa, pertsonalaren administrazioa, laneko prestakuntza, ahozko harremanak, lan-agiriak...

Gainera, euskararen alde egiten duten enpresek Bikain-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua eta Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskura ditzakete, jendaurrean hala erakusteko. Horretarako, martxoaren 3ko 53/2009 Dekretuak³³ ezarritako prozedurei jarraitu behar zaie.

Zigilua izango dute kontsumitzaile eta erabiltzaileei idatziz nahiz ahoz arreta euskaraz emateko konpromisoa borondatez hartzen duten establezimendu eta enpresek. Halaber, Dekretuak ezarritako gutxieneko edukiak euskaraz eskaintzeko konpromisoa hartu behar dute. Zigilu-eskakizuna egin ondoren, berau jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu behar da.

Ziurtagiria eskuratu nahi dutenek Eusko Jaurlaritzak eta Bikaintasunerako Euskal Fundazioak (Euskalit-ek) elkarlanean eta doan eskainitako ebaluazio-zerbitzuaren ebaluazio-prozesua gainditu beharko dute. Bada, EME oinarri hartuta, lau ardatz hartzen dira kontuan (erakundearen irudia eta komunikazioa, kanpo harremanak, barne harremanak eta hizkuntza-kudeaketa), eta hiru maila bereizten dira: oinarrizkoa, erdi maila eta goi maila.

Nolanahi ere, erantzukizun sozialetik negoziazio kolektiborako jauzia eman daiteke, hau da, borondatez kotasunetik benetako betebeharrak juridikoetara. Modu horretara, hitzarmen kolektiboaren bidez arau bihur daitezke euskararekiko konpromisoak³⁴. Horren adibide, dira, besteak beste, hurrengo hitzarmen kolektiboak:

³³ 2009ko martxoaren 16ko EHAA, 52. zk.

³⁴ Esangura horretan, ikusi Baz Tejedor, J.A. "Responsabilidad social empresarial y negociación colectiva: una propuesta de conexión funcional". In *Ci-vitas: Revista Española de Derecho del Trabajo*, 2012, 153. zk., 82-93. orr. Bada, autore horren ustetan, enpresaren erantzukizun sozialetik hitzarmen ko-

- Eroskiren IV. Hitzarmen Kolektiboa*³⁵: konpromisoa hartzen da tokian tokiko hizkuntza ofizialak erabiltzeko enpresaren informazio-euskarri guztietan, saltokietan, interneten, inprimatu-tako argitalpenetan, Eroski markako produktuen etiketetan, sustapen-liburuxketan. Areago, koofizialtasuna enpresaren xedeen artera biltzen da, eta, ondorenez, kanpo nahiz barne harremanetan, sustapen-neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen da. Horretarako, jarduera-lerro desberdinak ezartzen dira (67. artikulua).
- Euskal Trenbide Sarearen Hitzarmen kolektiboa*³⁶: euskara sustatzeko neurriak hartzen dira (erakundearen akordioak eta argitalpenak bi hizkuntza ofizialetan; jendaurreko lanpostuetarako maila-igoeretan euskaraz jakiteagatik %20ko puntuazioa ematen da, betiere, proba gainditzen bada; euskara ikasteko diru-laguntzak ematen dira; zenbait kasutan euskara ikasteko lizentziak aitortzen dira) (61. artikulua); euskara-plana ezartzeko konpromisoa hartzen da (62. artikulua); sindikatu-partaide-tza gauzatzeko batzordeen artean, gizarte-laguntzei buruzkoari euskara-planen gaineko eskumen parte-hartzailea aitortzen zaio (110.3 artikulua).
- Mecaner, S.A.U. enpresaren Hitzarmen Kolektiboa*³⁷: enpresan euskara sustatzeko 4.184,83 Euroko funtsa eratzten da (21. artikulua).
- Autobuses Lujua, S.L. enpresaren Hitzarmen Kolektiboa*³⁸: zuzendaritzak iragarki-taulan argitaratzen dituen abisu guztiak

lektiborako jauzitik hiru ondorio atera daitezke: hitzarmen kolektiboari datzekion partaidetzaren bidez enpresaren erantzukizun sozialarekiko konpromisoa indartzen da; hitzarmen kolektiboaren edukia aberasten da, antolamendu juridikoak kontuan hartu gabeko edukiak aintzat hartzen baitira; enpresak erantzukizun soziala marketin edo kosmetika huts gisa erabiltzea saihesten da.

³⁵ 2012ko martxoaren 7ko EAO, 57. zk.

³⁶ 2009ko maiatzaren 27ko EHAA, 99. zk.

³⁷ 2012ko apirilaren 4ko BAO, 67. zk.

³⁸ 2012ko martxoaren 15eko BAO, 53. zk.

gaztelaniaz eta euskaraz idazteko konpromisoa hartzen da (23. artikulua).

—*Inyectametal, S.A. enpresaren Hitzarmen Kolektiboa*³⁹: konpromisoa hartzen da enpresan euskara-ikastaroak emateko edo zentro ofizialetako matrikula ordaintzeko; langile-ordezkariek hala eskatzen dutenean iragarki-tauletako oharretan elebitasunaren alde egiten da (12. artikulua).

Francisco Javier Arrieta Idiakenez

LAN-ZUZENBIDEAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN IRAKASLEA
Deustuko Unibertsitatea

³⁹ 2012ko martxoaren 6ko BAE, 46. zk.